



# Etxalarko Ibilbideak



“AZKUA” PR NA-12

I.I.D.E.: .

Luz.: 9,150 km Des.: 685 m Zail.: 3 Den.: 3 h.

*Mendi tontor ikusgarria: Bidasoaldeko, Euskal Herriko kostaldeko eta Goi Pirinioko ikuspegi apartak.*

## IBILBIDEA

- 0,000 km: **ETXALAR**, herriko plaza (100 m). Irungo errepidetik joan eta Tximista erreka pasa baino lehen ezkerreko karrikatik igo.
- 0,205 km: Bidegurutzea. Ezkerreko karrikatik bide zuzen eta alternatiboa, Maestrueneko bordan barna igo eta Marimigeleneko bizkarrean ibilbidearekin elkartzen dena (3,600 km-an). Eskuineko karrika zelaitik segi.
- 0,325 km: Kanposantua. Haren atzetik segi, Larrapil-Sarriku auzoko bide asfaltatutik eta, ehun bat metrora, Fatimako Ama Birjinaren ermita ezkerrean utzi.
- 0,710 km: Bidea bitan banatzen da. Eskuinetik, beheruntz, Santa Krutz ermitako bidea (SL NA-5). Ezkerretik segi, bide asfaltatutik eta basoan barna.
- 1,400 km: Iturraldeko Borda baserrira (190 m) eta gero bidea bitan banatzen da. Etxearen eskuinaldetik, ahate haztegi handi batera. Ezkerraldeko, hiru bide: bat beherantz, Domekeneko Borda (Landetxea) baserrira; ezkerretik, maldan gora, Laketeneko Borda baserrira (oharra: bertatik bada zuzen igotzea, baserriko iralekutik 2,455 km-ra). Erdiko lurrezko bide zelai eta zabaletik segi, belagien maldatsuen artean; 75 metrora kislabe baten ondotik pasatu eta basoan sartuko gara.
- 1,825 km: Bidea bitan banatzen da. Eskuineko bide zabala utzi eta ezkerretik igo, traktore bide aldapatsutik, mendiko larre eta haritz zaharretan barna. Tarteka Auzako tontorra ikusten da. Bihurgune handi bat egin eta gero, ezkerretik Laketeneko Borda baserriko bidea elkartuko zaigu.
- 2,600 km: Eskuinera bihurgunea egin eta gero, **Marimigeleneko bizkarra** (356 m), harizti zahar batean. Arotzeneko Borda baserriko bidea ezker utzi eta haren belagia mugatzen duen harresi baten ondotik, bizkarreko bidetik.
- 2,935 km: Bidegurutzea. Eskuinetik segi, bizkarrean gora, mendi larren artean.
- 3,600 km: Bidea bitan banatzen da mendi bizkarrean (505 m). Ezkerretik, pista zabala Azkua mendi iparraldetik inguratzen duena (eta 6,820 km-an elkartzen dena); bertan lotzen da Etxalartik Maestrueneko bordan barna igotzen den bidea ere. Pista utzi eta eskuinetik igo, bizkarreko bidexkatik, Mendixorrotx tontorra inguratuz.
- 4,300 km: Mendi bizkarra eta lepoa (590 m). Ondoan, haritz zaharrak eta borda eroria. Mendi bizkarra utzi eta ekialdeko magaletik bidexka zuzenetik igoko gara. Azkeneko tartean pagadia agertuko da.
- 5,270 km: **Soralarreko lepoa** (707 m), pagadi bat ezkerrean utzi eta gero (bertan inguruko iturri bakarra dugu). Etxalar eta mendi faziaren mugarrira. Bidegurutzea: eskuinetik, bizkarrez bizkarreko bidexka; zuzen, Azkuako tontorra inguratuz, Asketa eta Aizkolegirako (Bertiz Natur Parkea) bidea. Ezkerretara jo eta zuzen igo, ongi definitua ez den bidexkatik (bat baino gehiago bada).
- 5,600 km: **AZKUAKO TONTORRA** (787 m), belartsu eta zabala, eta geodesia bertizea. Ikuspegi aparta, itsasotik Irati-Belagoaraino, erdian Bidasoaldeko mendiak eta, gure oinetan, Etxalarko herria. Jaitsiera: iparralderantz jo, bizkarreko larretatik eta beti ekialdeko amildegi handia eskuinera utzita. Handik behera malda pikoa, ongi definitua ez den bidexkatik.
- 6,820 km: Sasi lepoa (550 m), pagadia eta pista ezkerretik, Marimigeleneko bizkarretik datorrena (km 3,600). Zuzen jaitsi, pista nahiz bizkarretik, mendi larretan barna.





# Etxalarko Ibilbideak



- 7,350 km: **Artzameneko bizkarra** (425 m). Bidea bitan banatzen denez bi aukera: pista nagusitik eskuinera jo eta magaletik jaitsi (tarte hau seinalizatua dago, basoan barna, 8,050 km-raino); edo bizkarreko bidexkatik zuzen jaitsi (edozein kasutan, erreka zokora doan ezkerreko pista hartu gabe). Bizkarretik jaitsiko gara, Etxalarko ikuspegi aparta lagun, iraleku bat zeharkatu eta basoan sartuz; malda gero eta pikuagoa.
- 8,050 km: Etxea (220 m) eta Artzameneko pista (tarte seinalizatua), Etxalarrera jaisten dena. Pista zeharkatu eta, bizkarra mantenduz, etxearen ondotik doan bidexkatik jaitsi. Belagiak eta harizti zaharra.
- 8,390 km: Baserria, lizarrak eta Etxalartik igotzen den pista zementatua. Bertatik jaitsi (bada eskuinetik laburtzea, bidexkatik).
- 8,825 km: Zugarramurdiko bide asfaltatua, Larrapil-Sarriku auzoa (110 m). Bertan Argarata-Santa Krutz (SL NA-5) ibildearekin bat egiten eta ezkerretik segi.
- 9,150 km: **ETXALAR**, herriko plaza (100 m). Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

